

SAN NIKOLAS ETA SAN ELOI: ERDI ARO AMAIERAKO DONOSTIAKO BI KOFRADIEN INGURUKO OHAR BATZUK*

Iago IRIJOA CORTÉS

Historian doktorea – Ereiten K. Z.

Laburpena:

Behe Erdi Aroan zehar, kofradiak soziabilitate erakunde izan ziren, baita bizitza politiko eta ekonomikoan presio-eragile ere. Donostia horren adibide da. XV. mende amaieran elkarte horiek hamaika eztabaida sortu zituzten eta horren ondorioz, berregituratze prozesu bat ezagutu zuten, arazoak saiheste aldera. Horren adibide itsasgizonen Santa Katalina kofradia, arrantzaleen San Pedro elkarte eta Santiago zaindari zuten mahasti-inausleen taldea izan ziren. Baina hauez gain, hiribilduan beste bi kofradia ere izan ziren. Batetik, garai horretan desagertutako baina garrantzia izan zuen San Nikolas kofradia, lan-munduarekin ageriko lotura zuzenik ez zuena. Bestetik, 1490eko hamarkadan sortu omen zen zilargileen San Eloi kofradia, hain zuzen ere. Azkeneko hauen inguruan gauza gutxi esan dira eta horregatik, ondorengo lerroetan beraien gainean argi pixka bat ematen saiatuko gara.

Gako-hitzak: Donostia. XV-XVI. mendeak. Kofradiak. San Nikolas. San Eloi.

Resumen:

Durante la Baja Edad Media las cofradías fueron elementos de sociabilidad e incluso de presión en la vida política y económica. San Sebastián representa un ejemplo de ello. A fines del siglo XV las cofradías protagonizaron importantes debates, lo que derivó en una reorganización de esas agrupaciones, a fin de reconducir su actividad y evitar tensiones. Ejemplo de ello fueron la cofradía de mareantes de Santa Catalina, la de pescadores de San Pedro y la de podavines de Santiago. No obstante, no fueron las únicas agrupaciones. Por esas fechas

* Gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu Ignacio Miguéliz Valcarlosi, San Eloi kofradiaren inguruan emandako datuengatik eta horren inguruan egindako galderei erantzuteagatik. Esker onak Mikel Prietori ere luzatu behar dizkiogu, testua berrikusteko hartu duen lana-gatik, zein egindako gomendio eta zuzenketengatik. Horrez gain, ohartu behar dugu honek Ernesto García Fernández Dr. Jn.-ak zuzendutako eta argitaratu gabe dagoen gure doktorego-tesian oinarria duela, bertan adierazitakoei hainbat aldaketa eta hobekuntza egin zaizkielarik.

también tuvo una especial incidencia la de San Nicolás, sin vinculación aparente con el mundo laboral y desaparecida en ese contexto de reorganización, y la de plateros de San Eloy, que aparentemente fue creada en la década de 1490. Dos agrupaciones de las que hasta el momento se ha dicho muy poco y sobre las que trataremos en las líneas siguientes.

Palabras clave: San Sebastián. Siglos XV-XVI. Cofradías. San Nicolás. San Eloy.

Abstract:

During the Late Middle Ages, guilds were elements of sociability and even a pressure fact on political and economic life. San Sebastian lived that situation. At the end of the XVth century, the guilds lead many problems and this causes a reorganisation of that groups, in order to limit their activity. The best example of that situation were Santa Catalina, corporation of seamen; San Pedro, association of fishers; and Santiago, the guild of the vineyard-loppers. However, they weren't the only brotherhoods at the time. Even if she wasn't link with labour world, the association of San Nicolas had his importance too, and disappeared during those years. A second group was San Eloy, the guild of silversmiths which was born during the decade of 1490. We don't know very much about those last two associations, and that is why they will be the objective of the next lines.

Keywords: San Sebastian. XV-XVIth centuries. Guilds. San Nicolas. San Eloy.

Sarrera**

Iraganeko gizartean artean, soziabilitateak eta elkartzeko joerak berebiziko eragina izan zuten, baita Erdi Aroan ere¹. Pertsonen hainbat tresna erabili zituzten beraien arteko harremanak sustatu eta bideratzeko, instituzionalizatuak zein instituzionalizatu gabeak. Halakoak hamaika esparrutan garatu ziren; Behe Erdi Aroko gizartean lan munduari lotutako elkarte, korporazio edota kofradiak izan ziren horietan garrantzitsuenetarikoak, bereziki sektore ekonomiko ezberdinek garapen azpimarragarria lortu zuten populazio guneeetan.

Modu honetan, hiritar munduak elkarte ezberdinen sorrera ikusiko du. Egiari zor, halako taldeak ez zeuden testuinguru horri lotuak bakarrik, baina unibertso horrekin harreman sakona izan zuten. Hiribilduak eta hiriak, tokian tokiko ezaugarri, errealitate eta berezitasunak ahaztu gabe, leku dinamikoak izan ziren, bai politikoki zein ekonomikoki; hau dela eta,

** Laburdurak: AGG-GAO: Archivo General de Gipuzkoa-Gipuzkoako Artxibo Orokorra / AGS. RGS: Archivo General de Simancas. Registro General del Sello / ARChV: Archivo de la Real Chancillería de Valladolid / BEHSS: Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián / BRSPAP: Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko Boletina / EHU-UPV: Euskal Herriko Unibertsitatea-Universidad del País Vasco / GFA: Gipuzkoako Foru Aldundia.

1. Honen inguruan, ikus Margarita CANTERA MONTENEGRO-k bere “Miedo a la soledad y al desamparo. Algunas respuestas de la sociedad y del hombre medieval” (*En la España Medieval*, 37 (2014), 363-375 orr.), artikuluan planteatutako ideia interesgarriak.

maila juridiko hori zuten populazio guneetan ziharduten hainbat lanbidek edo zenbait sektore ekonomikok elkarreak antolatze joera erakutsi zuten. Hainbatetan prozesu horrek ogibideetan oinarritutako kofradien sorrera ekarri zuen, XV. mendean horren famatuak izan ziren lanbide-kofradiak sortuz². Elkarte hauek izan ziren, behin baino gehiagotan, aurreko mendeetako

2. Asoziazionismoaren gaia aurrerapen eta berrikuspen nabarmena jasotzen ari den gaia dugu, bibliografia benetan zabala duelarik. Horren lekuko dugu Lizarrako XIX. Erdi Aroko Ikasketen Asterako aukeratu zen gaia, Erdi Aroko Europako kofradiak, gremioek eta elkartasunak izan zuten paperari buruzkoa. Ikus *Cofradías, gremios y solidaridades en la Europa Medieval. XIX Semana de Estudios Medievales. Estella, 20 a 24 de julio de 1992*. Iruñea: Nafarroako Gobernua, 1993. Duela gutxi egindako eguneratze historiografiko baterako, ikus MARTIN-VIVERO TAJUELO, A.: “Las cofradías castellanas en la Edad Media. Pasado, presente y futuro de la producción historiográfica”. In: *Espacio, Tiempo y Forma, Historia Medieval*, 25 (2012), 285-309 orr. Ildo horretatik, GARCÍA FERNÁNDEZ, E.: *Gobernar la ciudad en la Edad Media: Oligarquías y élites urbanas en el País Vasco*. Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, 2004; IRADIEL, P.: “Corporaciones de oficio, acción política y sociedad civil en Valencia”. In: *Cofradías, gremios, solidaridades...*, aip. lan., 253-284 orr. eta MONSALVO ANTÓN, J. M.ª: “Aproximación al estudio del poder gremial en la Edad Media castellana: Un escenario de debilidad”. In: *En la España Medieval*, 25 (2002), 135-176 orr. Datozen paragrafoetarako, ald. ÁLVAREZ FERNÁNDEZ, M.ª: “Corporaciones profesionales y cofradías religiosas en una ciudad del reino de Castilla: Oviedo (siglos XIII-XV)”. In: *Homenaje al profesor Eloy Benito Ruano, vol. 1*. Murtzia: Universidad de Murcia, 2010, 33-56 orr.; ÁLVAREZ FERNÁNDEZ, M.ª: “Del mundo artesanal al devocional. Solidaridades urbanas en el Oviedo medieval”. In: *Iglesia y ciudad. Espacio y poder (siglos VIII-XIII)*. Oviedo-León: Universidad de Oviedo-Universidad de León, 2010, 179-215 orr.; ÁLVAREZ FERNÁNDEZ, M.ª: “Religious Confraternities in the Cities of the Kingdom of Castile. The Case of Oviedo (Thirteenth-Fifteenth Centuries)”. In: *Brotherhood and Boundaries. Fraternità e barriere*. Pisa: SNS, 2012, 405-422 orr.; COLLANTES DE TERÁN, A.: “La formación de los gremios sevillanos. A propósito de unos documentos sobre los tejedores”. In: *En la España Medieval*, 1 (1980), 89-104 orr.; CORDERO RIVERA, J.: “Asociacionismo popular: Gremios, cofradías, hermandades y hospitales”. In: DE LA IGLESIA DUARTE, J. I.: *La vida cotidiana en la Edad Media. VIII Semana de Estudios Medievales: Nájera, del 4 al 8 de agosto de 1997*. Nájera: Instituto de Estudios Riojanos, 1998, 387-400 orr.; GONZÁLEZ ARCE, J. D.: “De la corporación al gremio. La cofradía de sastres, jubeteros y tundidores burgaleses en 1485”. In: *Studia Historica. Historia Medieval*, 25 (2007), 191-219 orr.; FALCÓN PÉREZ, M.ª I.: “Las cofradías de oficio en Aragón durante la Edad Media”. In: *Medievalismo*, 4 (1994), 59-80 orr. Gipuzkoako kasurako, ALBERDI LONBIDE, X.: *Conflictos de intereses en la economía marítima guipuzcoana. Siglos XVI-XVIII*. Bilbao: EHU-UPV, 2012; ARAGON RUANO, A.: “Los podavines: Labradores jornaleros en San Sebastián durante los siglos XV al XVIII”. In: *BEHSS*, 33 (1999), 7-38 orr.; ARAGON RUANO, A.; eta ALBERDI LONBIDE, X.: “El proceso de institucionalización de las cofradías guipuzcoanas durante la Edad Moderna: Cofradías de mareantes y de podavines”. In: *Vasconia*, 30 (2000), 205-222 orr.; AYERBE IRIBAR, M.ª R.: “Ordenanzas de la cofradía de mareantes de San Pedro, en San Sebastián (1489)”. In: *BEHSS*, 41 (2007), 417-437 orr.; BANÚS Y AGUIRRE, J. L.: “Ordenanzas de la cofradía de Santa Catalina”. In: *BEHSS*, 8 (1974), 73-106 orr.; DÍEZ DE SALAZAR, L. M.: *Ferrerías en Guipúzcoa (siglos XIV-XVI). II. Fuentes e Instituciones*. Donostia: Haramburu, 1983, 116-200 orr.; ERKOREKA GERVASIO, J. I.: *Análisis histórico-institucional de las cofradías de mareantes en el País*

gizartearen botere guneetako batzuk; askotan udalbatzari kontrajarriak, kofradia horiek udal gobernuek esparru ekonomikoetan egindako araudien aurka agertu ziren.

Kofradia batzuen jatorriak XIII-XIV. mendeetan kokatu badaitezke ere, beraien gorenaldia XV. mendean eman zen; Gipuzkoa horren lekuko da, datu gehien ematen dizkigun garaia hori baita³. Mugimendu hauen gutz-tien garapenean, udalbatzarrek eragin nabarmena izan zuten orduko jarduera ekonomikoak arautzeko joeragatik. Kofradia hauen sorrera arrazoia, udal-gobernuek talde sozioekonomiko ezberdinen beharrei erantzuteko izan zuten ahulezia edo ezintasunarekin lotua izan da; egoera horren aurrean, zenbait lanbide edo ofizio beraien arteko antolaketa berri bati ekin zioten.

Arazoia arrazoi, esan bezala XV. mende hartan kofradien hazkunde garairik oparoena eman zen, asoziazionismo eredu horren arrakasta agerian utziz. Halaber udalbatzen eta elkarte horien arteko liskarrak areagotu egin ziren, kofradiek eguneroko bizitzan sortzen zituzten liskarrak aitzakiatzat hartuta. Udalbatzek erakunde horien aurkako neurriak hartu zituzten eta erregeen laguntzaz, kofradien aro berri bat hasi zen, eraldaketa garaia, beraien jarduerak modu zorrotzean kontrolatu zirelarik. Laurehunaren azken

...

Vasco. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 1991; GARCÍA FERNÁNDEZ, E.: “Las cofradías de oficios en el País Vasco durante la Edad Media (1350-1550)”. In: *Studia historica. Historia medieval*, 15 (1997), 11-40 orr.; GARCÍA FERNÁNDEZ, E.: *Gobernar la ciudad...*, aip. lan.; GARCÍA FERNÁNDEZ, E.: “Las cofradías de mercaderes, mareantes y pescadores vascas en la Edad Media”. In: ARÍZAGA BOLUMBURU, B.; eta SOLÓRZANO TELECHEA, J. A. (koord.): *Ciudades y villas portuarias del Atlántico en la Edad Media. Nájera. Encuentros Internacionales del Medievo. Nájera 27-30 de julio 2004* Logroño: Gobierno de La Rioja-Instituto de Estudios Riojanos, 2005, 257-294 orr.; IMAZ, J. M.: *La industria pesquera en Guipúzcoa al final del siglo XVI (Documentos de la época)*. Donostia: GFA, 1944; TENA GARCÍA, M.^a S.: “Composición social y articulación interna de las cofradías de pescadores y mareantes (Un análisis de la explotación de los recursos marítimos en la Marina de Castilla durante la Baja Edad Media)”. In: *Espacio, Tiempo y Forma*, III, 8 (1995), 111-134 orr.; TENA GARCÍA, M.^a S.: “Cofradías y concejos: encuentros y desencuentros en San Sebastián a finales del siglo XV”. In: MONSALVO ANTÓN, J. M.^a (arg.): *Sociedades urbanas y culturas políticas en la Baja Edad Media castellana*. Salamanca: Universidad de Salamanca, 2013, 231-254 orr.; TXUEKA ISASTI, F.: “Getariako erregearen balea eta Donostiako probestua”. In: *BRSBAP*, LXIV (2008), 93-158 orr., bereziki 141-144 orr.

3. Ildo honetatik, gurean Alacant-erako erabili diren hitzak hartu ditzakegu. Bertan zera aipatu da: “*la industria (...) medieval tuvo un carácter modesto (...) y las corporaciones de oficios hacen su aparición tardíamente*”, XV. mendean, eta “*siguiendo la tendencia general que se aprecia en todo Occidente, el siglo de apogeo de las cofradías*” (HINOJOSA MONTALVO, J.: “Ermitas, conventos y cofradías en tierras de Alicante durante la Edad Media”. In: *Anales de la Universidad de Alicante. Historia medieval*, 8 (1990-1991), 257-300 orr., bereziki 269 eta 277 orrialdeak eta 38. oin-oharra). Valentzian ere antzeko egoera ikus daiteke, nahiz eta testu-ingurua ezberdina izan. Ikus IRADIEL, P., aip. lan., bereziki 269, 270, 272 eta 284 orr.

hamarkadetan sortu edo berrantolatu ziren kofradiak helburu errukiorrak izan zituzten bestelakoan gainera, eta honela, “*acabarán siendo mayoritarias las asociaciones caritativas*”⁴.

Zenbaitetan lanbide-kofradiak ogibide berean zihardutenek sortutako elkarteak ziren; bestetan, aldiz, sektore ekonomiko bati, esparru bereko hainbat lanbide biltzen zituenari, lotutakoak. Santu edo babesle baten izena hartzen zuten, askotan lanbideren batekin harreman zuzena zuena. Helburu nagusiek sorospen edo laguntza izaera zuten, eta bi esparrurekin lotutakoak ziren: bata erlijioari zegokiona eta bestea, berriz, lan munduari lotutakoa. Modu honetan, behar gorrian edo hildako kofradearen aldeko meza, limosna edo laguntzen inguruko xedapenak agertzen dira, baina baita lan-hitzarmenen, soldaten, ekoizpenaren edota produktuen salerosketaren inguruko neurriak ere.

Edonola ere, Erdi Aroan egon ziren kofradia guztiek ez zuten beti ogibide oinarri hori jarraitu. Batzuetan kofrade zirenen lanbideek diogunaren isla argia dakarte, beraien artean sektore ezberdinei lotutako ogibideak topatu baitaitezke. Era berean, hainbatetan lanbide jakin bati lotutako kideek elkartean berebiziko pisu edo garrantzia bazuten ere, horrek ez zuen esan nahi korporazio horrek lan hori ogibide zuten pertsona guztiak biltzen zituenik, edota lan sektore jakin baten elkartea zenik⁵. Honela, kofradien egituraren arrakasta agerikoa izan bazen ere, ogibide guztiak ez ziren modu horretan antolatu, eta lanbide-kofradia batek ez zituen, nahi eta nahi ez, ogibide berdina zuten pertsona guztiak batu behar. Modu honetan, eta behin baino gehiagotan, Jose Maria Monsalvok planteatutako “*antolaketa osatugabe, heterogeneo eta zehaztugabe*” baten aurrean gaude⁶.

Egia da kofradiak populazio gune askotan artisau-antolakuntzaren garapenean indar handia izan zutela, eta beraiek antolaketa horren eredu izan zirela; baina hau ez zen leku guztietan gertatu, eta, era berean, kofradien sorreran hainbat helburu edo arrazoi zeuden, ez beti lan munduari lotuak⁷.

4. ÁLVAREZ FERNÁNDEZ, M.^a: “Corporaciones profesionales...”, aip. lan., 48 orr. eta IDEM: “Del mundo artesanal...”, aip. lan., 198 orr.

5. Honen inguruan, ald. HEERS, J.: *Occidente durante los siglos XIV y XV. Aspectos económicos y sociales*.artzelona: Labor, 1968, 275 eta 279 orr.

6. Egilearen hitzetan: “*encuadramiento incompleto, heterogéneo e inespecífico*” (MONSALVO ANTÓN, J. M.^a: “Aproximación al estudio...”, aip. lan., 153-155 orr.). Ildo honetatik interesgarriak dira “lanbide” eta “kofradia” kontzeptuen artean Paulino IRADIEL-ek egiten dituen oharra (“Corporaciones de oficio...”, aip. lan.).

7. Ditugun datuen arabera, ez dirudi kofradia hauen sorrera herriek hiribilduekin sinatu zituzten auzotartzeen prozesuarekin lotu behar dugunik. Honen inguruan, ald. ROSSIER, G.: “Solidarités et changement social. Les fraternités urbaines anglaises á la fin du Moyen Age”. In: *Annales ESC*, 5 (septiembre-octubre 1993), 1128-1129 orr. (1127-1143) eta HEERS, J., aip. lan., 229-230 orr.

Adibide gisa Segura edo Tolosa hartu ditzakegu. Behe Erdi Aroan biek elkarte horien garapen garrantzitsua ezagutu zuten, baina kofradien eraketa gauzatu zituzten arrazoiek ez zuten esparru ekonomikoarekin harremanik izan, ez zuzenik ezta zeharkakorik ere; horren lekuko ditugu Arrameleko San Juan kofradia, Tolosan, eta Errastiolazako San Andres, Seguran. Kasu hauen ildotik argi geratzen da kofradien izaera guztiz bestelakoa izan zitekeela⁸. Segurako San Andres Errastiolazakoa, adibidez, hainbat leinuk bizitza politikoa zuten eragina saihestu edo mozteko sortua izan zen. Are gehiago, bi hiribilduetan nolabaiteko arrakasta instituzionala lortu zuten, Tolosan bereziki, baina kofradiek ez zuten lanbideekin zerikusi zuzenik. Egia da batzuetan bertan zeuden ogibide batzuek pisu nabarmena izan zutela, baina osaketa heterogeneoa zuten eta beraien egitekoak ez zeuden, funtsean bederen, kideen ogibideen esparru edo alor ezberdinak arautzeko lotuak; bestelako asmoak burutzeko sortu ziren⁹.

Kontrako norantzan ditugu burdin arloari lotutako Gipuzkoako hainbat herri. Industria horren garrantzia agerikoa izan zen Hernanin, edo Segura eta Tolosaren jurisdikziopean zeuden hainbat populaziotan: Legazpi edo Berastegi-Elduaingo olagizonak presio handiko eragile izan ziren, baina Deba bailarako hainbat hiribildutan ez bezala, Erdi Aroan zehar ez zuten olagizon, masukari edo meatzari kofradiarik osatu¹⁰.

8. Arramelerako, ald. GARCÍA FERNÁNDEZ, E.: “La cofradía de San Juan de ‘Arramele’ y las ordenanzas de Tolosa de 1501”. In: *Sancho el Sabio*, 4 (1994), 301-312 orr.; TRUCHUELO GARCÍA, S.: *Tolosa en la Edad Moderna. Organización y gobierno de una villa guipuzcoana (siglos XVI-XVII)*. Tolosa: Lizardi Kultur Elkarte, 2006, 38, 75-78 eta 107-108 orr. Segurarako, BARRENA, E.: “Segura: Hiribilduaren sorreratik eskualdeko hegemoniara”. In: INTXAUSTI REKONDO, J. (zuz.): *Segura historian zehar*. Segura: Segurako Udala, 2000, 115-138 orr., bereziki 117-118; GARCÍA FERNÁNDEZ, E.: *Gobernar la ciudad...*, aip. lan., 418, 439 eta 442 orr. Ikus, baita, IRIJOA CORTÉS, I.: *Estudio de la vida urbana guipuzcoana: Los valles del Oria y Urumea en la Baja Edad Media*. Vitoria-Gasteiz, 2016 (argitaratugabeko doktorego-tesia), III. liburukia, 960 orr. eta hh.

9. Ald. itsasgizon eta arrantzaleen kofradiekin, non, Lekeition izan ezik, ez zuten Kantauri itsasaldeko hiribilduetan udalbatzen egitura instituzionalean sartzetik izan. Ikus ERKOREKA GERVASIO, J. I., aip. lan., 402-403 orr.

10. Elgoibar-Mendaroko olagizonen kabildoa edota Arrasateko masukari, meatzari eta purrika edo kurrikagileen kofradiak dira horren lekuko. Ikus DíEZ DE SALAZAR, L. M., aip. lan.; GARCÍA FERNÁNDEZ, E.: “Las cofradías de oficios...”, aip. lan., 14, 15, 26, 29 eta 36 orr. eta GARCÍA FERNÁNDEZ, E.: *Gobernar la ciudad...*, aip. lan., 370-371. orr. Lan munduarekin zerikusia ez duten kofradien kasu bat, Oviedoko jostunen 1450eko ordenantzetan ikus dezakegu; hauetarako, ALVAREZ FERNÁNDEZ, M.^a: “Del mundo artesanal...”, aip. lan., 195-196 orr. Egile honek, Asturiasko hiri horretarako zera dio: “*las corporaciones profesionales no ejercieron ningún control de sus oficios, pues ésta era competencia exclusiva del concejo*”. Alabaina, udalbatzaren gainean berebiziko kontrola izan zuten, udal karguen hautesleak hamabi lanbide edo “mester”-etako ordezkarien artean aukeratzen baitziren (ibidem, 197 orr.).

Era berean, sortu ziren elkarte batzuk ez zuten kofradia eredua jarraitu, nahiz eta talde kutsu edo sentimendua izan. Horren adibide hiribildu barneko toponimia edo kale-izendegia dugu. Lanbide jakin bati lotutako pertsonak hiribilduko gune jakin batean kokatzeak eta honek kale-izendegian izan zezakeen islak, hainbat lanbide-taldeen inguruan sortzen zen elkartasun edo asoziazionismo prozesua aditzera ematen du¹¹. Horien artean harakinen taldea aipa dezakegu; oso talde aktiboa izan zen, dinamika handikoa eta udalbatzen aldetik arautze nabarmena izan zuena, bai lanbideak sortzen zituen higie eta osasun arazoengatik, edota, haragiak oinarrizko produktu moduan zuen garrantzia dela eta, egon zitekeen espekulazio, garestitze edo saldutako produktuen kalitate eskasagatik¹². Donostia horren lekuko izan zen, bertako harakinak presio talde nabarmena izan baitziren XV. mende erdialdetik gutxienez. Ez ziren lanbide-kofradia moduan eratu, baina donostiarrek behin baino gehiagotan salatu zuten beraien jardun monopolistikoa, harik eta “harakin-leinuez” hitz egitera iritsi arte¹³.

Donostiako kasuan, gainera, korporazio kutsu nabarmena zuten beste ogibide batzuek joera bera erakutsi zuten; alegia, kofradiatan ez antolatzaerena. 1489ko sutearen ondotik abian jarri ziren berreraikuntza lanak aprobetxatuz, arotz eta harginek jornalak garestitzeko aukera ezinhobea ikusi zuten; honek beraien indarra erakusten du, baina ogibide horiek bildu zitzaizketen erakundeen inguruan ez dugu informaziorik¹⁴. Egile batzuek halako elkarteak “usadiozkoak” (“*consuetudinarias*”) bezala definitzen dituzte, eta Donostian oso hedatuak zeudela ematen du. Honen adibiderik adierazgarriena 1524ko urrian ospatu zen udalbatzarrean dugu. Bilera horretan

11. Hainbatetan oinarrizko jardunetan aritzen ziren lanbideek denbora bat behar izan zuten kofradia bat osatzeko; bai behintzat, beste lanbide batzuekin alderatuta. Ald. FALCÓN PÉREZ, M.^a I.: “El gremio de panaderos de Zaragoza en el siglo XV”. In: *Aragón en la Edad Media*, 7 (1987), 199-230 orr.

12. BAZÁN DÍAZ, I.: “Sanidad y urbanismo de las villas vascas durante la Baja Edad Media”. In: *Vasconia*, 21 (1993), 69-80 orr.; HINOJOSA MONTALVO, J.: “Poder municipal y abastecimiento de carne en la Gobernación de Orihuela a fines de la Edad Media”. In: *Miscelánea Medieval Murciana*, XXI-XIII (1997-1998), 157-170 orr.; VAL VALDIVIESO, M.^a I.: “Ascenso social y lucha por el poder en las ciudades castellanas del siglo XV”. In: *En la España Medieval*, 17 (1994), 167 orr. (157-184); VAL VALDIVIESO, M.^a I.: “Indicios de la existencia de una clase en formación: El ejemplo de Medina del Campo a fines del siglo XV”. In: *Anales de la Universidad de Alicante. Historia medieval*, 7 (1988-1989), 209-213 orr. (193-224). Oviedoko kasuan, harakinen aipamen goiztiarrenetarikoak dituen lanbidea zen eta hiri barnean berezko lekua okupatzeaz gain, udalbatzaren ordenantzek beraien jardura zehatz-mehatz arautu zuten. Ikus ALVAREZ FERNÁNDEZ, M.^a: “Del mundo artesanal...”, aip. lan., 185-186 orr.

13. Donostiakoa adibide eredarria da, baina ez bakarria. Tolosan edo Usurbilen ere, beraiekin tirabirak izan ziren.

14. AGS. RGS. 1489-III, fol. 46 (Medina del Campo, martxoak 24).

hiribilduko lanbide ezberdinen soldata eta jornalak adostu ziren. Hartutako erabakia jakinarazteko, udalbatzak ogibide ezberdinetako ordezkariak deitu zituen. Hainbat eta hainbat bertaratu ziren baina horietatik, mahasti-iñausleak ziren kofradia batean bilduta zeuden bakarrak. Aitzitik, bileran hargin, errementari, kalafate edo istinkari eta zapatarien ordezkariak parte hartu zuten, baina horietatik inork ez zuen kofradian oinarritutako antolaketarik. Modu honetan beraien eta beraien lanbide-kideen izenean aritzen zirela ohartu zuten (“*por sí y en nombre*”), ez ordea elkarte jakin baten izenean¹⁵.

Hala ere, Donostia lanbide-kofradia hauen indarraren adibide garbi askoa da, bereziki arrantzaleen San Pedro kofradia, Santa Katalinaren babespean biltzen ziren merkatari, marinela eta nao-maisuena eta mahasti-iñausleak Santiago kofradia aintzat hartzen baditugu. Hiruek ala hiruek paper garrantzitsua izan zuten XV. mende amaierako bizitza ekonomiko zein politikoan eta oraindik ere XVI. gizaldiaren lehen hamarkadetan hainbat liskar eta auzi eragingo dituzte, aurreko mendean baino askoz indar gutxiagoz bada ere.

Donostian, beraz, lanbide-kofradiak eta talde kontzientzia zuten ogibideak ditugu. Baina hauez gain, eta Erdi Aro amaieran ere, kofradia egituraketa zituen beste elkarte batzuen arrastoak daude, jarraitzen zailagoak direnak. Eta ondorengo lerroetan hauei erreparatuko diegu. Bi izango dira gure paragrafoen helburu: San Nikolas eta San Eloi kofradiak, hain zuzen ere. Bigarrena izan da, gainera, azken ikerkuntzek agerian utzi duten berrikuntza nabarmenetako bat, bereziki zilargintzaren inguruan Ignacio Miguéliz Valcarlos-ek burutu dituen lanei esker; izan ere, orain arte guttiz ezezaguna genuen kofradia zen.

1. San Nikolas

Santa Katalina eta San Pedro kofradiekin batera, San Nikolasen zaindaritzapean antolatuta zegoen elkartearen presio eragile bihurtu zen Erdi Amaierako Donostian, bereziki XV. mendeko bigarren erdialdean. Protagonismo honekin alderatuta, bere inguruan dugun dokumentazioa benetan urria da. Momentuz bere jatorria ezezaguna zaigu eta hala-ber, santu hori zaindari hartzeko arrazoien inguruko datuak eskasak dira.

15. Ordezkariak honakoak izan ziren: 9 istinkari, 7 zapatari, 6 mahasti-iñausle, 3 arotz, 2 hargin eta beste bi errementari. Hainbat lanbideko ordezkariak bidali ez zutela ematen du, besteak beste itzainek, batelariak, emakume garraiolarik eta jornalariak, mandazainek, jostunek, upaginek, zerrataileek eta arpoi eta amuak egiten zituzten erementariak. Ikus ARAGÓN RUANO, A., aip. lan., eranskin dok. III. “Usadiozkoa” terminoaren erabilerarako, ikus ARAGÓN RUANO, A.; eta ALBERDI LONBIDE, X., aip. lan. Ald. TXUEKA ISASTI, F., aip. lan.

Historiografiak bere inguruan gauza gutxi aipatu ditu eta batzuetan gaizki deskribatua izan da. Egile batzuek adibidez, arrantzaleen kofradia zela adierazi izan dute, ziurrenik San Nikolas zaindari moduan zuelako, baina lanbide horrekin lotzen duen daturik ez dugu¹⁶. Baliteke santu horren omenezko basiliza bati lotuta egotea, nahiz eta hipotesi hau oso zalantzagarrria dela aitortu behar dugun¹⁷.

Itzal artean gorde den erakundea izanik ere, datuek XV. mende erdialderako sortua zegoen elkarte dela adierazten digute; ez hori bakarrik, hamarkada horietan Donostiako bizitzan garrantzia eta eragina zuela islatzen dute. Bere ordezkariak hiribilduko udalbatzar irekietan parte hartzen zuten, beste kofradietako kideekin eta hamaika auzoekin batera. Ondorioz, Erdi Aroko gizarte donostiarrean nolabaiteko erreferentzia puntu moduan jardun zuen.

Bere kideei dagokienez, bai gizarte aldetik zein ogibideen alorretik, oso mundu anitza osatzen dute. Erakundearen barnean dauden pertsonak XV. mendeko bigarren erdialdeko gizarte donostiarren esparru zabala hartzen dute, mailarik gorenean zeudenak tartean. Lanbide umila duten pertsonak topa daitezke, hala nola zapatari edo arotzak, Pedro Igurrolakoa edo Domingo Arratzaingoaren kasuek ondo adierazi bezala. Baina bestetik, pertsonaia garrantzitsuak agertzen dira: Osoa Martinez Ibarbiakoa edo

16. Hori da Soledad Tenak zioena (*La sociedad urbana...*, aip. lan., 349 orr.), zeinak, bitxia bada ere, ez zuen San Pedro kofradia aipatzen. Egile berak berriki akats bera egin du, San Nikolas kofradiako 1491ko ordenantza batzuk aipatuz. Ald. ERKOREKA GERVASIO, J. I., aip. lan. eta Ernesto GARCÍA FERNÁNDEZ-en aipatutako lanak, non ez zaion marinela kofradia moduan aipamenik egiten. San Nikolasek marinela zaindari moduan zuen irudirako, ald. BURKE, P.: *La cultura popular en la Europa Moderna*. Madril: Alianza Universidad, 1996, 89-90 orr. eta bereziki, RUIZ DE LA PEÑA, J. I.: "Funciones y paisajes urbanos de las villas marítimas del norte de España: Avilés (siglos XII-XV)". In: *Mercado inmobiliario y paisajes urbanos en el occidente europeo (siglos XI-XV) (Actas de la XXXIII Semana de Estudios Medievales. Estella, 17 a 21 de julio de 2006)*. Iruñea: Nafarroako Gobernua, 2007, 700-701 orr. (691-736).

17. Basiliza honi, kokapen ezezagunekoa izaki, oso egile gutxik erreparatu diote, horien artean AGUIRRE SORONDO, A.; eta LIZARRALDE ELBERDIN, K.: *Ermitas de Gipuzkoa*. Atan: Fundación José Miguel de Barandiarán, 2000, 159 orr. Agidanez, Hernanin San Nikolasi eskeinitako basiliza ere ba omen zegoen, hiribildutik legoa t'erdira eta Aranoko mugan (ikus ibidem, 229 orr.) Edonola ere, oso adierazgarria da San Nikolas izena Donostiako toponimian arrastorik utzi ez izana. Ald. TELLABIDE AZKOLAIN, J.: *Donostiako toponimi erregistroa / Registro toponímico donostiarra*. Donostia: Donostiako Udala, 1995. Lehenengo egileek XVIII. mendeko datuak ematen dituzte eta beraz, ez dakigu basiliza hori lehenago eraikia izan zen ala ez. Edonola ere, kontsultatu ditugun XIV-XVI. mendeetako donostiarren testamentuetan San Nikolasen aldeko inolako legaturik ez egitea oso adierazgarria dela deritzogu.

Nikolas Sagastizarkoa merkataria, probestuaren seme zen Amado Martinez Engomezkoa edota Migel Otsoa Olazabalgoa¹⁸.

Hainbat kidek XV. mende erdialderako udalbatza karguetan esperientzia zuten; hor ditugu Migel Martinez Berrasoetakoa eta Juan Laguraskoa, lehenengoa hamabi nagusi 1455ean eta bigarrena 1478an. Edonola ere, adierazgarriagoa da kideen jarduera politikoa 1480 eta 1490ko hamarkadetan areagotzea, bereziki hamabi nagusi karguetan aritu zirelarik, hau da, Donostiako udalbatza osatzen zuten karguetatik garrantzia nabarmena zutenetan: Domingo Hernialdekoa 1484an izan zen errejidore; Otsoa Martinez Ibarbiakoa, hamabi nagusi 1484 eta 1493an; Martin Santxez Estirongoak azken kargu hori bete zuen 1487an, Martin Perez Okendokoa, aldiz, alkate izan zen 1492an; Martin Ampuerokoa, portuzaina 1501ean; azkenik Nikolas Sagastizarrekoa aipatu dezakegu: hamabi nagusi izan zen 1494 eta 1501 urteetan eta 1512an, berriz, errejidore.

1488tik aurrera San Nikolas kofradiaren inguruan ematen den isiltasunak, Anaya peskisoroak Donostian izan zuen jardunarekin lotura zuzena du. Erregeen ordezkari horrek hainbat esparru ikertu zituen, baita kofradiak ere; baina ez hori bakarrik. Urumeako hiribilduan indarrean zeuden elkarte horiek guztiak bertan behera utzi zituen, San Nikolasekoa ere horien artean zegoela pentsa daitekeelarik. Testuinguru horretan Santa Katalina edo San Pedroko kofradiek berrantolatze prozesu bat izan zuten, eta beraien ordenantzak berresteaz gain, gerora ere nolabaiteko protagonismoa izango dute hiribilduko bizitzan; baina horiekin gertatu ez bezala, San Nikolasekoa bizitza politikotik behin betirako desagertu zela ematen du, ez baitugu ondorengo urteetan bere informaziorik izango, ezta arrasto txikienik ere. Soledad Tenak, adibidez, Anayaren jardunaren ondotik San Nikolas kofradia Santa Katalinakoan barneratu zela uste du¹⁹. Elkartearekin lotutako araudirik ez idaztea, baieztatzea edota berrestea nahiko esanguratsua da, batez ere San Pedro eta Santa Katalinakoekin hori gertatu zelako. Gure ustetan, horrek kofradiak helburu elizkoiak edo laguntza ematekoak besterik ez zituela adieraziko luke; hau da, bere helburuak ez zeudela lanbide jakin bati edo lan munduari lotutakoak. Era berean, bere kide batzuek udalbatzan izan zuten partaidetza altuak ez du esan nahi, nahita nahi ez, San Nikolas kofradiaren interesek mundu horretan aurrera egin zutenik.

18. ARChV. Pleitos Civiles, Moreno, Fenecidos, 1337-4, 14 at. fol. Edonola ere, itsasgizonen hainbat kofradiek beraien kideen artean arotz, harakin eta mahastizainak zituztela ohartu behar dugu. Ikus GARCÍA FERNÁNDEZ, E.: “Las cofradías de mercaderes...”, aip. lan., 259-260 orr.

19. TENA GARCÍA, M.^a S.: “Composición social...”, aip. lan., 119 orr. eta, bereziki, bere “Cofradías y concejos...”, aip. lan., 233 orr., 3 oin-oharra.

Kofradia ezabatzeko argudioak gizarte ordenari lotuta egongo ziren. Batetik, udalbatzak hainbat esparru ekonomiko arautzeko zuen papera behin baino gehiagotan ezbaian jartzen zuelako; hau da, hiribilduko gobernuaren aurkako kexuak maiz agertu zituelako. Bestetik, eta beste leku batzuetan gertatu bezala, kideek ospatzen zituzten batzarretan edo urtero antolatzen zuten bazkarian hamaika liskar, ika-mika eta kalapita sortzen zirelako. Istilu horien aitzakiapean, Anayak kofradia desegin zuen.

Datuek islatzen dutenaren arabera, San Nikolas bertan behera geratu zen, baina ondoren zer jazo zen edo beraien kideek zernolako bidea egin zuten jakitea zinez zaila da; dauzkagun datuekin bederen. Desegitearen aurrean kofradiaren ordezkariak inolako kexu, aiene edo arrangurarik aditzera ez ematea, ordenantzen edo bestelako araudien inguruko daturik ez izatea eta kofrade zirenen testamentuetan elkarteari inolako aipamenik ez egitea, adibide esanguratsuak dira²⁰. Ez bakarrik desegiteari dagokionean; zalapartarik gabeko amaiera horrek San Nikolas kofradia bera egituraketa aldetik ahulezia nabarmena zuela adieraziko luke. Modu honetan, XV. mende amaieran izan zezakeen garrantzia edo arazoak sortzeko indarrak, San Pedro eta Santa Katalina kofradien eraginpean ikusi beharko genituzke; hau da, bi elkarte horien itzalean bildutako indarra izan zela, ez berez sortutakoa²¹.

20. Ald. Pedro Igorrolakoarena, non kofradiari buruzko aipamenik egiten ez duen. Eskritura 1488-1490 urte bitartean egin zen eta ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Olvidados, 1340-1, 43 au. fol. eta hh. ikus daiteke.

21. Oso erakargarria litzateke Laredo, Santander edo San Vicente de la Barquera bezalako herrietan gertatu bezala, San Nikolas kofradia honek Donostiako Herriaren zati garrantzitsu bat elkartzeko tresna izan zela planteatzea, bereziki elkarte desagertu ondoren Herriaren ekintzek berebiziko garrantzia eskuratu zutelako. Baliteke kideren batek Herriaren protestetan edo udal-gobernuaren oligarkizazioa salatzen zutenen artean izatea, Martin Santxez Estirongoa kasu. Edonola ere, kofradiaren baitan eliteari estuki lotutako pertsonak egotea eta Herriaren eta elkartearen arteko loturak islatuko lituzkeen datuen ezean, hipotesi ahula dela aitortu behar dugu. Are gehiago, boletín honetako artikuluan adierazi bezala, San Nikolas eta Santa Katalinako kideei buruzko datuak udal-karguekin alderatzen baditugu, badirudi 1489-1500 urte bitartean kofradietan sartuta zeuden pertsonak udal mailan aritzeko aukera izan zutela. Aipatu ditugun Kantabriako kasuetarako, ikus SOLÓRZANO TELECHEA, J. A.: “De ‘todos los más del pueblo’ a la ‘República e Comunidad’: El desarrollo y la consolidación de la identidad del Común de Laredo en los siglos XIV y XV”. In: *AMEA, Anales de Historia Medieval de la Europa Atlántica*, 1 (2006), 73-80 eta 89-90 orr. (61-106); eta SOLÓRZANO TELECHEA, J. A.: “*Commo uno más del pueblo*: Acción colectiva y ambiciones políticas del Común en las villas portuarias de Cantabria en la Baja Edad Media”. In: *Edad Media*, 14 (2013), 239-257 orr., bereziki 247-250 orr. Palentzian ere antzeko zer edo zer gertatu zen, eta Herriak Jaunaren Gorputzaren Kofradia eta San Antongoa erabili zituen udalbatzaren aurkako mugimenduak burutzeko. Honen inguruan, ikus ESTEBAN RECIO, A.: *Palencia a fines de la Edad Media. Una ciudad de señorío episcopal*. Valladolid: Universidad de Valladolid, 1989, 186-193 orr.

San Nikolaseko hainbat kidek beste bide batzuk jorratu zituztela pentsatu behar dugu. Agian, ondorengo urteetan bestelako erakundeak sortu zituzten, helburu errukior edo elizkoiak aintzat hartuta, baina aurretik izandako indarrrik gabe. Horien artean Hirutasun Guztiz Santuaren zaindaritzapean sortutako elkarteak genuke. Hau ere oso erakunde iluna da, eta bere berriak Maria Martinez Urruzunokoa andreak 1497ko urtarrileko bere testamentuagatik jaso ditugu, besterik ez; Urruzunoren hitzak dira kofradia horren inguruan atera ditzakegun datu bakarrak. Bertan, bere testamentu-be-tearazleei honakoa agintzen zien: “*conplir sus enterrorios, nobena e cabos de annos con sus obligadas [sic] e candelas e con todo lo que se debe conplir a vna de las cofradesas o confrades de la Santa Trinidad, e segund se vsa fazer a las semejantes personas de la dicha testadora es [sic] en la dicha villa de San Sabastián*”²².

2. San Eloi

San Nikolas kofradiaz aparte, Donostiak beste erakunde batzuen inguruan ikertzen jarraitzeko aukera ematen digu. Orain aipatu dugun Hirutasun Guztiz Santuko elkarteak begirada sakonago bat behar luke, baina ez da egoera horretan dagoen bakarra; baditugu beste hainbat elkarte, oraindik orain ilunpetan darraitenak edo oso gutxi ikertuak izan direnak. Horien artean San Eloi kofradia dago. Bere adibideak gainera, pertsona ezberdinak biltzen ote zituen hausnartzera garamatza; izan ere San Eloi zilargileen zaindaria zen eta bere izenpeko elkarteetan ogibide honek berebiziko garrantzia zuen. Donostiako kasuan baina, eta XVIII. mendera arte, elkarteak hamaika motako lanbidetan jarduten ziren pertsonak bildu zituen, bai metalaren munduari lotutakoak (hala nola urregileak, beiragileak, errementariak edo aitzo edo labanagileak), zein beste batzuk²³.

Orain arte, historiografia aldetik klasikotzat jo daitezkeen egileek, azken urteotan burutu diren ikerkuntzek edota 1813ko erreketara baino lehenagoko dokumentazioa biltzeari ekin dioten ekimenek elkarte honi buruzko oso datu gutxi bildu dituzte, eta hala izatekotan, informazioa XVI. mende

22. ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Walls, Olvidados, 1226-1, 254 au. folioa.

23. 1759. urtean osatzen zuten langileen artean sarrailagileak, errementariak, iltzegileak, eztainulariak, aitzogileak, latoigileak, perzkin edo galdaragileak, ate eta leihoetako beiragileak, erlojugileak, farogileak, hojalatagileak, mandazainak “*y demás trabajadores de metales a fuego y martillo*”. Ikus MIGUÉLIZ VALCARLOS, I.: *El arte de la platería en Gipuzkoa: siglos XV-XVIII / Zilargintza Gipuzkoan: XV-XVIII. mendeak*. Donostia: GFA, 2008, I, 37, 70, 71 eta 74 orr.

amaieratik aurreragokoa izan da²⁴. Ignacio Miguéliz Valcarlosen lanak kenduta, inork ez ditu XV. mende amaiera edota XVI. mende hasierako kofradiari buruzko datuak plazaratu. Izan ere garai hartan zilargileei buruzko informazioa egon badago, baina kofradiari lotutako berriak hutsaren hurrengo direla ematen du²⁵. Dokumentazioan isiltasuna nabarmena da.

Agidanez, XVIII. mendean Donostiako udal artxiboan hainbat idatzi gordetzen ziren, 1491. urtetik zilargile-contrasteen izendapena egiten zela frogatzen zutenak. Modu honetan, ofizio horrek hiribilduan zuen garrantzia aditzera ematen da²⁶. Baina egiari zor, 90eko hamarkadako adibide honek

24. Ildo honetatik, Banúsek argitara emandako antzinako inbentarioak oso adierazgarriak dira, Santa Katalina, San Pedro eta Santiago kofradiei buruzko informazioa jasotzen bada ere, ez baita San Eloiri dagokion berririk ematen. Ald. BANÚS Y AGUIRRE, J. L.: *El archivo quemado. Inventarios antiguos del acervo documental de la M.N. y M.L. Ciudad de San Sebastián antes de la destrucción de 1813*. Donostia: Dr. Camino, 1986, 56, 57, 115-119, 217, 219, 237 edo 258-260 orr.; CAMINO Y ORELLA, J. A.: *Historia civil-diplomático-eclesiástica, anciana y moderna de la ciudad de San Sebastián con varias noticias particulares pertenecientes a la Provincia de Guipúzcoa*. Donostia: Imprenta de los Hijos de I. R. Baroja, 1892; IMÍZCOZ, J. M.^a: “Hacia nuevos horizontes: 1516-1700”. In: ARTOLA, M. (arg.): *Historia de Donostia-San Sebastián*. Donostia-Hondarribia: Nerea-Donostiako Udala, 2000, 87-180 orr.; IRIXOA CORTÉS, I.: “Iturri dokumental ezezagun bat? XVI. mende hasierako Donostiako udal akten laburpenak”. In: *BEHSS*, 45 (2012), 537-553 orr.; MÚJICA, S.: *Curiosidades históricas de San Sebastián*. Bilbo: Biblioteca Bacongada de Fermín Herrán, 1900 (2 liburuki) (arg. faks. MAXTOR, Valladolid, 2011); MURUGARREN, L.: “Cuaderno de extractos de los acuerdos del Ayuntamiento de San Sebastián”. In: *BEHSS*, 30 (1996), 291-504 orr.; MURUGARREN, L.: “Cuaderno de extractos de los acuerdos del Ayuntamiento de San Sebastián. Registros de Actas, II (1600-1619)”. In: *BEHSS*, 32 (1998), 1-107 orr. eta MURUGARREN, L.: “Cuaderno de extractos de los acuerdos del Ayuntamiento de San Sebastián. Registros de Actas, III (1621, 1651, 1738, 1739)”. In: *BEHSS*, 33 (1999), 39-127 orr.

25. Edonola ere, guk daturik topatu ez izanak ez du esan nahi etorkizunean, bereziki Aro Berriari dagokion dokumentazioan, informaziorik aurkituko ez dela. Egia da orain arte egin diren ikerkuntzen artean Ignacio Miguélizek bakarrik topatu dituela, baina gaiak ikerketa sakon bat merezi duela uste dugu, bereziki Iruñeako (eta Zaragozako) Elizbarrutiko Artxiboko auziak profitatuz.

26. Juan Bautista Larrondokoa artxibozainak, garai hartan kontserbatzen ziren akta-liburuak 1491tik aurrerakoak zirela zioen, eta beraiei esker zera frogatzen zen: “*la justicia y regimiento de dicha ciudad, desde que fue titulada así y quando villa, hacía nombramiento de contraste para plata y oro, plomo y estañ, pesas y medidas*” (AGG-GAO JD IM 2/22/90; ikus baita MIGUÉLIZ VALCARLOS, I., aip. lan., I, 75 orr.). 1491ko aktei egiten zaien aipamenak, halako dokumentuek XVIII. mende erdialdean bizi zuten sakabanatze egoeraren erakusle dira, 1740an egin zen udal-artxiboaren inbentarioan azaltzen zen lehenengo akta liburuak 1493koa baitzen (eta hurrengoak 1500ekoa). Are gehiago, 1740ko inbentarioaren datuek, Larrondoren 1757ko adierazpenak eta Vargas Poncek egindako akten hustuketak antzeko datuak helarazten badizkigute ere, ez dira guztiz berdinak eta hamarkada horietan zehar liburuak agertu-desagertu egiten zirelaren adibide bikaina dira. Agertu zirenen artean 1491, 1497, 1498 eta 1502koak izango genituzke. Azken hau 1740 eta 1757an galdutzat ematen zen, baina Vargasek kontsultatu zuen. Bestalde, 1757rako badirudi 1507 eta 1525eko akta liburuak galdu egin zirela. Udal akta liburuaren inguruan, ald. IRIXOA CORTÉS, I.: “Iturri dokumental...”, aip. lan., bereziki 541 orr.

ez digu kofradiaren inguruko aipamenik egiten; horretarako XVII. mende hasierako dokumentaziora jo behar dugu. Garai honetan oraindik kofradiak zuen “liburu zaharra” kontserbatzen zen. Orduko adierazpenen arabera, “*allaránse en este libro escritos todos los nombres de los maiordomos que an sido cada año, comenzando desde el año de 1499, asta este presente año de 1582*”, eta urtero izendatzen ziren ofizialen zerrenda zekarren²⁷. Halaber, badakigu XVI. mende amaierarako kofradiak berezko ordenantzak zituela, nahiz eta gaur egunera arte iritsi ez direla ematen duten²⁸. Bestalde, XVII. mendeko auzietan hiribilduko zaharrena zela aipatzen zen, baina halako adierazpenak kofradiaren interesak aurrera egiteko taktika ziren, garai hartan esparru sinbolikoari lotuak; izan ere, hitz horiek Corpus egunez ospatzen zen prozesioan beste kofradien aurretik joateko lehentasuna edo pribilegioa mantentzeko asmoz jorratu zen auzi batean txertatzen dira²⁹.

Beraz, San Eloi babesle zuen erakundearen antzintasuna defendatzen duten datuak hainbat mende beranduago egiten diren adierazpenetan oinarria dutela ezin ahaztu. Hau da, sorrera dataren dokumentazio garaikidea kontsultatuta, ez da elkartearen inguruko daturik aipatzen. Ildo hone-tatik, benetan harrigarria eta esanguratsua da 1487 eta 1509 artean beraren inguruko daturik topatu ez izana, momentuz bederen. Gogoratu behar dugu urte bitarte horretan Donostiako kofradien berrantolakuntza sakona eman zela, batzuetan beraien jarduna eten zelarik eta hainbatetan ordenan-tza eta araudi berriak egin eta berretsi zirelarik. Testuinguru honetan San Eloi kofradiaren aipamena hutsaren hurrengoa da: 1489ko udal-ordenan-tzek ere ez diote aipamenik egiten, baina bai oraindik kofradia eratu gabe zuten mahasti-inausleei. Era berean, garai hura ez dirudi halako erakunde bat sortzeko aproposena zenik, bere helburua lan esparruan hainbat arau edo xedapen ematea bazen behintzat. Izan ere, halako elkarteen aurrean udalbatzaren papera indartzen saiatzen ari zen momentu baten aurrean gaude, eta San Eloiaren sorrerak udal gobernuaren aldetik nolabaiteko mesfidantza eka-rriko zukeen. Horrez gain, 1510 eta 1524 urteetan lanbideei lotuta agertzen diren gertakari adierazgarrietan ez da bere inguruko aipamenik egiten: lehenengoan, Santiago eta San Pedro kofradiek beraien ordenantzak erre-jimenduaren aurrean aurkeztu zituzten; bigarrenean, gorago aipatu bezala,

27. Iruñeako Elizbarrutiko Artxiboa. Procesos, Olo, 66-1, 61 fol. Transkribaketa Ignacio Miguélez Valcarlosen adeitasunari zor diogu.

28. Ald. MIGUÉLIZ VALCARLOS, I., aip. lan., I, 61 eta 14 orr.

29. Corpus eguneko prozesioan lau kofradietako (San Pedro, San Eloy, Santa Catalina eta Santiago) maiordomoek zituzten ika-miken ondorioz, erregimenduak 1650eko uztailaren 3, “*los papeles que tubiesen en razón de la posesión que pretenden*” ekartzeko adierazten zuen. Hilaren 6an ordura arte egindakoa gorde zedila erabaki zen, “*por la orden que los años pasados*”, eta konkordia hitzarmen bat egin zedila. Ikus MURUGARREN, L.: “Cuaderno de extrac-tos... III...”, aip. lan., 88-89 orr. Ald. MIGUÉLIZ VALCARLOS, I., aip. lan., I, 51 eta 91 orr.

ogibide ugaritako soldata eta tasak finkatu egin ziren³⁰. Gauzak honela, eta XV. mende amaieran sortu zen hipotesia aintzat hartuz, San Eloi kofradiak laguntza eta debozio kutsu nabarmena zuela pentsatzera garamatza, lan-munduari lotutako xedapenek leku txikia izango zutelarik; behintzat, udalbatzarekin talkarik ez sortzeko adina.

Egia da ordea, San Eloi zaindari moduan aukeratzea ez dela zorizkoa; hautaketak zilargileek erakundean zuten pisua islatuko luke edo bestela, beraiek zirela elkarte berri bat sortzeko interes handiena zutenak. Ildo honetatik, eta kofradiaren batzartzeko lekua San Bizente eliza zela aintzat hartuta, hainbat ikertzailek aukeraketa hau lantegi edo tailer gehienak bere inguruan kokatzen zirelaren hipotesia plazaratzera eraman dituzte, edota bestela, San Bizenteren barruti erlijiosoan kokatuak zeudela³¹.

Bere kideei dagokienez, informazioak berantiarak dira eta 1535-1544 epera arte ez dugu beraien inguruko izenik lortuko. Ordurako, elkarteko diruzain edo maiordomoen artean Juan Frantzisko Barrenetxeakoa (1535), Juan Lizaurreakoa, Juan Basoaltukoa (biak 1536an) eta Juan Caminoskoa (1544) ditugu. Diputatuen artean, aldiz, Pedro Lizartzakoa, Juan Bidaurrekoa, Juan Irigoienkoa eta Andres Matakoka ditugu 1535ean eta Paskual Lizartzakoa, Martin Sarrondokoa, Pedro Cardel ("*Cordel*") eta Juan Irurakoa 1536an³². Beraien inguruan bildu ditugun datuek, kofradiaren "lanbide" ezaugarri hori ezbaian jartzen dute, edo hobe esanda, elkartean biltzen zirenak lan-esparru jakin bati bakarri lotuak zeudelaren ideia. Juan Caminoskoa armagintzari lotua dago, eta Juan Basoaltukoa, aldiz, arotza da³³. Baina kofradiak hamaika alorretako kideak biltzen zituelaren ideia Pedro Cardelgoaren eta Andres Matakokaaren adibideen bidez dugu; izan ere, zilargintza edo metal ekoizpenari lotutako ogibideen ordezkaritza bat baino, kofradiakideen artean egon

30. IRIXOA CORTÉS, I.: "Iturri dokumental...", aip. lan., 550 orr. 1524ko akordioan hamaika dira aipatzen diren ogibideak, baina beraien artean ez daude zilargileak edo San Eloi kofradiari lotuta agertu daitezkeen besteak. Bilera honetarako ikus ARAGÓN RUANO, A., aip. lan.

31. Ald. MIGUÉLIZ VALCARLOS, I., aip. lan., I, 37 eta 39 orr.

32. Ibidem, 53-54 orr. "Sarrondo"-ren ordez, Larrondo edo Sorrondo irakurri beharko genukeela uste dugu.

33. Caminostarren inguruan, ikus IRIJOA CORTÉS, I.: *Estudio de la vida urbana...*, aip. lan., I go liburukia, 362-363 orr. 1516an Juanes arotz-maisu moduan aipatua da (Sancho el Sabio Fundazioa. Otazu Etxeko Artxiboa. Oyaneder, 68-12), eta gure ustetan, 1520ko urtarri-lean egiten diren Sebastian San Sust-ekoaren ondasunen bahitura-autoetan lekuko gisa agertzen den bera da (ikus ARCHV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 808-1). Alabaina, Hernanin eta 1520 eta 1547 bitartean izen bereko pertsona dugu, baina ez zaio lanbideari inolako erreferentziarik egiten. Ikus Hernaniko Udal Artxiboa, D-4-1-1, 9 au. fol. eta GPAH-AHPG, 3/3364, 10 au.-at. folioak. Kofradien konposaketa anitzaren inguruan, IRADIEL, P., aip. lan., 261, 262 eta 266 orr.

zitekeen aniztasuna agerian jartzen dute. Bi kasu horietan merkataritzari zein gudari lotutako ontzi-maisu edo ontzi-jabeen aurrean gaude, ez metalarekin lotura duten pertsonen aurrean. 1481. urte inguruan jaiotako Cardel, adibidez, Nikolasa izeneko naoan ontzi-maisu moduan aritu zen 1531n, Ragusako (gaur egungo Dubrovnik hiriko) merkatarien gaiak Londrestik Livornora garraiatzen³⁴. 1508 inguruan jaiotako Andres Matakoa ere mundu horretan ikus dezakegu, baina Cardel baino beranduago: 1547an kapitain eta nao-jabe moduan aipamena egiten zaio, eta horrez gain, 1543tik frantsesen aurkako jarduera militarretan burubelarri sartuta egon zelaren datuak iritsi zaizkigu³⁵. Ondorioz, San Eloiaren zaindaritzapeko elkarteko kide ugari edo gehienak metalgintza munduarekin zerikusia zutela egia bada ere, argi dago beraien artean beste ogibide askotako pertsonak zeudela. Aniztasun honen oinarrian kofradiaren beraren helburuak leudeke; hau da, hauek elizarekin edo erlijioarekin askoz lotura estuagoa izango zutela eta ez, ordea, lanbide jakin batekin edo lan esparru zehatz batekin. Horren lekuko Cardel eta Mataren kasuak ditugu; izan ere, biek ala biek elkarteko diputatu kargua bete zuten eta horretarako kofrade izatea ezinbestekoa zen.

Ildo honetatik, San Eloi zaindari zuen elkarteak oso adierazgarria den eta itxuraz kontraesankorra gerta daitekeen araudia zuen. Antzekoak diren beste elkarteetan ez bezala, kofradiako maiordomoak edozein pertsonen artean aukeratu ziren; hautagaiak ez zuen, nahi eta nahi ez, elkarteko kide izan behar. Modu honetan, kargua bete zutenen artean zilargileak, errementariak, sarrailagileak, ezpatagileak edota alkatea bezalako udal-karguak egon ziren. Horrez gain, hautagaiak ez zuen bere izendapenaren egunean bertan egoteko betebeharririk eta maiordomo postua bete behar zuen pertsonak ondare, gizarte-maila edo izaerari lotutako baldintza orokor batzuk bete behar zituen, oso zorrotzak ez zirenak³⁶. Halako ezaugarriak benetan ezohikoak dira, are gehiago maiordomoak kofradiaren kontuak eta ondarea zainitzeaz, eta egun seinalatuetan bazkari eta askariak antolatzeaz arduratzen zenean; hau da, kofradian ardura gehien zuen kargua zen³⁷. Eta gure ustetan, baldintza ireki hauek udalbatzaren eta kofradiaren arteko talka eskasia azalduko lukete, hein batean behintzat.

* * *

34. ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Walls, Olvidados, 997-7, non Pedro edo Petri beraren deklarazioak ikus daitezkeen. Abizena Usurbilen ikus dezakegu, XV. mende erdialdean. Ald. ARChV. Pleitos Civiles, Lapuerta, Fenecidos, 207-2, 126 au. fol.

35. AGG-GAO CO MCI 104. Jaiotza-dataren inguruan, ikus ARChV. Pleitos Civiles, Zarandona y Balboa, Fenecidos, 808-1 auzian berak egiten zuen adierazpena.

36. Ikus MIGUÉLIZ VALCARLOS, I., aip. lan., I, 51-52 orr. Egile honek ere, kargua Donostiako gizarteko pertsona garrantzitsuenek bete zutela dio.

37. Hauek San Eloi, Corpus eta Santa Isabel egunak ziren. Azken honetan hauteskundeak burutzen ziren. Honen inguruan, ibidem, I, 52-56 orr.

Behe Erdi Aro amaieran eta XVI. mende hasieran eta Donostiako gizartean, kofradiak sortzeko joerak beren horretan iraun zuen, baina horietako zenbait berrogeita hamar urte lehenago ikusi daitezkeen ildotik ezberdinak izan ziren; ezin bestela izan, XV. mende amaieran kontrol, arautze eta berregituratzeko zorrotza jaso baitzuten. Egia da beraien sustraiak Erdi Aroan errotzen zituzten hainbat erakundek iraun egin zutela, hainbatetan indar edo eskumen nabarmenez lagundurik, baina hori ez zen orain aurkeztu ditugunen kasua. Izan ere, lanbide jakin batekin edo lan esparru batekin zerikusia zuten neurri eta arauak ez ziren beti kofradiak sortzeko arrazoi nagusia; bestelako asmoak ere izan ziren. Halakoetan, elkartearen kideen artean jatorri eta lanbide ugari topatuko dira, unibertso ezberdinei dagozkienak.

San Nikolas eta San Eloi horren adierazle izan ziren, baina biek bizitza arras ezberdina izan zuten. Izan ere garai zail batean txertatzen dira, XV. mende amaierak aro baten amaiera eta beste baten hasiera ekarri baitzuen. Lehenengo elkarte, Europa mailan kofradiek XV. mendean ezagutu zuten arrakastaren erakusle da. Baina bera ere, Donostian bizi zen prozesu horren baitan beste esparru, erakunde eta talde batzuetatik salatu ziren tirabiren protagonistetako bat izan omen zen. Modu honetan, Donostian garai hartan bizi ziren arazoekin amaitzeko gauzatu ziren ekimenen ildotik, eta bere garai-kide ziren San Pedro eta Santa Katalinako kofradiak ez bezala, San Nikolas kofradia desegin edo desagertu zen, inolako arrastorik utzi gabe eta prozesu horrek ondorioz izan zuen ala ez jakin gabe. San Eloiren sorrera ere iluntasunez inguratua dago. XVI. mendearen bigarren herenetik aurrera dokumentua dugu, baina lehenengo pausoak Laurehunaren amaieran eman omen zituen, lanbide-kofradia berriak sortzeko xamurra ez zen garai batean. Hala eta guztiz ere, San Nikolas-ekoak ez bezala, aurrera egitea lortu zuen, ziu-renik garai berri horiek eskatzen zuten baldintzei egokitu zelako. Bigarren elkarte honetan zilargileek izan zuten eragina agerikoa bada ere, bildu ditugun bi adibideek kideen osaketa anitza islatzen dute, partaideak ogibidez eta gizarte-mailaz arrunt ezberdinak izan baitziren; ondorioz, lanbide-kofradien aurrean baino, laguntasun eta erlijio kutsuz bustitakoez hitz egin behar dugulakoan gaude.

ERANSKINA

SAN NIKOLAS KOFRADIAKO KIDEAK (1461-1488)*

Urtea	Buruzagi edo maioralak	Kofradeak
1461	Lope Villabonakoa, zapataria Pedro Arratzaingoa, arotz eta istinkaria (1460-61) Domingo Saez Legarregikoa (1461-62)	Juan Gaztelukoa Migel Martinez Berrasoetakoa Domingo Berrasoetakoa Juan Perez Okendokoa Juan Laguraskoa Juan Tolosakoa Otsoa Martinez Ibarbiakoa Juan Berastegikoa

* Iturriak: HERRERO LICEAGA, V. J.; y FERNÁNDEZ MARTÍNEZ, M.: *Fuentes medievales del archivo municipal de Hernani (1379.1527)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2011, dok. 9-12 (1461 eta 1467); AGG-GAO CO ECI 581 (1475); ARChV. Pleitos Civiles. Moreno, Fenecidos, 1337-4, 34 au.-at. folk.; CRESPO RICO, M. A.: CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M.: *Colección documental del Archivo Municipal de Rentería. Tomo II (1470-1500)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1997, 68. dok. (1478); LARRAÑAGA ZULUETA, M.; y LEMA PUEYO, J. A.: *Colección de Documentos Medievales del Convento de San Bartolomé (1250-1515)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1995, 62. dok. (1484); ARChV. Pleitos Civiles. Moreno, Fenecidos, 1337-4, 71 at. folk. (1486). 1488rako, ald. AGS. Consejo Real, 677-10, 16 au.-at. folk.

Pasaiaiko badiaren inguruan Donostiak eta Errenteriak izan zuten auzian, lehenengoak 1474ko uztailaren 12an Juan Martinez Radakoa epaile gisa izendatzen duenean, zortzi auzo aipatzen dira, tartean Juan Perez Okendokoa, Juan Laguraskoa, Martin Santxez Estirongoa eta Otsoa Martinez Ibarbiakoa. Hernanik eta Donostiak 1461ean egindako hitzarmenean, laurak San Nikolaseko kofrade moduan aipatzen dira, baina 1474ko dokumentuan “gizon on” bezala definituak dira, besterik gabe. Ald. CRESPO RICO, M. A.: CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M., aip. lan., 57 dok. 1461eko irailean Domingo maiorak moduan ageri da. Dokumentu horretan Pedro Arratzaingoa elkarteko kide soil gisa agertzen zaigu, baina urte horretako maiatzean, aldiz, maiorak bezala aipatua da. Litekeena da karguen hauteskundeak urte naturalarekin bat ez etortzea, baina 1478an hiru buruzagiei egiten zaien aipamenak kargu horiek hiru zirela adieraz lezake. Azkenik, 1486ko uztailaren 9an Donostiako udalbatza ireki batean epai bat ematen zen. Bertan agertzen diren auzoen zerrenda luzea da eta udal ofizialen ondoren, honakoak aipatzen dira: “*bachiller Martyn Ruys [de Elduayen] e Amado d’Engomes e Juan Peres de Pandilla e Juan Ortiz de Salasar, Anton Gómes, Pedro de Segura, Juanes de Ronçesvalles e Vicente d’Elduayen e Martyn Sanches d’Estiron e Juan Myguel de Çacayo e Martyn Peres de Oquendo e Climento de Vhacue e Martyn de Anpuero e Martyn Ochoa de Fayet e Domyngo d’Ernyalde, çapatero, mayores de la confradía de Sant Nicolás*”. Azken adibide honi dagokionez, ez dugu uste guztiek buruzagi edo maiorak kargua betetzen zutenik; postu hori Ampuero, Fayet eta Ernialdek beteko lukete. Lope Arratzaingoari dagokionez, 1503an aipatzen den arotz eta istinkaria dela uste dugu. Ald. LARRAÑAGA ZULUETA, M.; eta LEMA PUEYO, J. A., aip. lan., 81. dok.

Urtea	Buruzagi edo maioralak	Kofradeak
1475	Pedro Igurrolakoa, arotz-maisua	
1478	Juan Huakuekoa Domingo Hernialdekoa, zapataria Nikolas Sagastizarrekoa, merkataria	
1484	Otsoa Martinez Ibarbiakoa, merkataria Migel Otsoa Olazabalgoa	Juan Martinez de Unanuekoa, batxillerra Amado Martinez Engomezkoa Juan Laguraskoa Domingo Pariskoa
1486	Domingo Hernialdekoa, zapataria Martin Otsoa Fayet-ekoa Martin Ampuerokoa	Martin Santxez Estirongoa Martin Perez Okendokoa
1488	Txartiko Hoakoa	